

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Hasierako onespena ematea Arriagako ateko 59-61.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Arriagako ateko 59-61.a irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari. Administrazio-dosierrean dute eskuragarri proiektua interesdunek.

2. Gasteizko Arriagako ateko 59-61.eko etxejabeen elkarte aitortzea desjabetze honen onuradun.

3. Delako proiektua informazio publikora ateratzea, hilabeteko eperako, ALHAOn, iragarki taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, interesaturik dagoen orok egokitzen dituen ohar eta erreklamazioak aurkezterik izan dezan.

4. Halaber, dosierrean ondasun edo eskubideen titular gisa ageri direnei balioa zehazteko orriaren eta kalte-ordain orriaren berri hitzez hitz ematea, banan-banan, hilabeteko epean — jakinarazte-egunaren biharamunetik — alegazioak aurkezterik izan dezaten — balioa zehazteko orri horretan jasotzen dira aplika daitezkeen balioeste-irizpideak —, eta orobat jakinaraztea onuraduntzat jotako entitateari ere.

5. Jakinaraztea hiru hilabetekoa dela desjabetze-dosierraren berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, hasteko erabaki honen datatik, nahiz eta epe hori eten egingo den baldin eta interesdunei akatsak zuzen ditzatela edo beharrezko diren agiriak edo beste judizio-elementu batzuk bidal ditzatela eskatu behar bazaie, interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo, bete ezean, betetzeko emandako epean.

6. 2018ko azaroaren 28ko ebazpenean — Arriagako ateko 59.eko etxejabeen elkarteari obra-lizentzia ematen zitzaion horren bidez, ataria eraberritu eta igogailua instalatzeko, B02 lokalari eraginez, baita Arriagako ateko 59.eko sotoko solairuko ibilgailu-gordelekuari ere (Eraikuntzen Zerbitzuko 2015/RJERF380 dosierra) — eta 2018ko urriaren 22ko ebazpenean — Arriagako ateko 61.eko etxejabeen elkarteari obra-lizentzia ematen zitzaion horren bidez, ataria eraberritu eta igogailua instalatzeko, B01 eta B02 lokalei eraginez, baita Arriagako ateko 61.eko sotoko solairuko ibilgailu-gordelekuari eta 01 aparkalekuari ere (Eraikuntzen Zerbitzuko 2015/RJERF379 dosierra) — obrak hasteko emandako epea etetea, desjabetze-dosierra ebazten den arte.

7. Orobat jakinaraztea probidentzia hau Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Eraikuntzen Zerbitzuari, dagozkion ondorioetarako.

8. Arriagako ateko 59-61.eko etxejabeen elkarteari jakinaraztea ezen, indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatuz — 2019ko abenduaren 27ko ALHAO, 148. zk. —, desjabetzeko hasierako onespenearekin batera, dagokion tasa — “jabetza nahitaez kentzeko dosierrak izapidetzea, hirugarren batek eskatuta edo onuraduna administrazio publikoa ez bada” — eskatuko dela, hau da, 459,85 euro (laurehun eta berrogeita hemeretzi euro eta laurogeita bost zentimo), eta kopuru hori desjabetze-dosierra behin betiko onetsi aurretik ordaindu beharko dela.

9. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari beharrezko diren agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzeko.

Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - beheko solairua – egongo da ikusgai dosierra, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 31n

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

NAHITAEZ DESJABETU BEHARREKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA				
Nahitaezko desjabetzearen inguruko legedian eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarritakoaren ildotik egin da zerrenda, zeinek Arriagako ateko 59-61. zenbakikoa irisgarri egiteko okupatu beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak biltzen baititu, bai eta horien titularren izenak ere.				
FINKA	KATASTROKO ERREFERENTZIA	AZALERA GAURKOA (METRO KOADROAK)	ERAGINA (METRO KUBIKOAK)	TITULARRAK
Arriagako atea, 59 behea, eskuina	59590368000020010DU	74,7	5,21	NANa: 72738874V NANa: 72727649Q Beste titular batzuk: halakoen berririk ez
Arriagako atea, 61 behea, eskuina	59590368000010010DS	65	5,07	NANa: 16224000F NANa: 71249196A Beste titular batzuk: halakoen berririk ez
Arriagako atea, 61 behea, ezkerria	59590368000010010DS	66,37	2,54	NANa: 16244967K Beste titular batzuk: halakoen berririk ez
Arriagako atea, 59-61 sotoa, 1. zenbakiko garaje-plaza	59590368000020012HS	27	0,04	NANa: 12621806G NANa: 16164722T Beste titular batzuk: halakoen berririk ez
Arriagako atea, 59-61 sotoa, errodatze-banda	59590368000002 59590368000001 sotoko solairua	sotoa osorik	0,04	ARRIAGAKO ATEKO 59-61KO GARAJEEN JABEEN ERKIDEGOIA (H-01230721) Beste titular batzuk: halakoen berririk ez
Arriagako atea, 59-61 sotoa, 8. zenbakiko garaje-plaza	59590368000010020GS	27	-	NANa: 16120832V NANa: 16211776L Beste titular batzuk: halakoen berririk ez